



EMAN BIDEA EUSKALERRIA IRRATIARI
LETRA ETA MUSIKA: **Urko Oskoz**
ABESLARIAK: **Fermin Muguruza eta**
Euskalerrria Irratiko Lantaldea

EUSKALERRIA IRRATIA
IZAN ZAITEZEN LIBREA
BULTZADA BAT DA ENE KANTAK
EGIN DEZAZUN BIDEA.

IRRATIAK MARGOTU
NAHI DU IRUÑERRIA
EUSKARAREN KOLOREZ
OZEANO BERRIA.

EZ ITOTZEKO BEHAR
DITUGU EURI TANTAK
BEREA ESKAINTZERA
HELDU DA ENE KANTAK

EUSKALERRIA IRRATIA
IZAN ZAITEZEN LIBREA
BULTZADA BAT DA ENE KANTAK
EGIN DEZAZUN BIDEA.

IRRINTZI DU ETXEA
ARRAIN HANDIEN ANTZA
GOTORLEKU DORREA
HOR EGITEN DU DANTZA

IRRATI KOLOREDUN
HEGAZKINETAZ URRUN
ARRANTZALEOK ORDUN
IZANGO DUGU LAGUN

EUSKALERRIA IRRATIA
IZAN ZAITEZEN LIBREA
BULTZADA BAT DA ENE KANTAK
EGIN DEZAZUN BIDEA. (BERRIZ)